Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

# 13/2022 Ebazpena, abenduaren 19koa.

Espedientea: RMT 11/2022.

PRESIDENTEA: María Barrena Ezcurra.

MAHAIKIDEA: Amaia Zurbano-Beaskoetxea Laraudogoitia.

IDAZKARIA: Iñigo Alvear Lekue.

Bizkaiko Foru Aldundiko Gardentasunari dagokion Erreklamazioen Batzordea, aurretik aipatutako kideek osatzen dute eta hurrengo EBAZPENA eman dute A aurkeztutako erreklamazioari dagokionez, bere unean planteatutako informazio publikoa eskuratzeko egindako eskaerari oraindik erantzunik eman ez zaiolako. Maria Barrena Ezcurra Andreak jardun du hizlari, eta Batzordearen iritzia adierazi du:

## AURREKARIAK

LEHENENGOA. 2022ko azaroaren 3an A erreklamazio bat egin zuen Batzorde honetan, adieraziz urte honetako irailaren 29an idazki bat aurkeztu zuela Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailean, eta hilabete geroago ez du erantzunik jaso.

Erreklamazioarekin batera 2022ko irailaren 29an Gizarte Ekintza Sailean aurkeztutako idazkia zetorren, eta ondorengo informazioa eskatzen zuen:

*1) 155/2021 Foru Dekretuak eguneko zentroko plazen gehieneko kostu teorikoa finkatzen du. Nola kalkulatu dute? Zergatik prezio hori eta ez beste bat?*

# Resolución 13/2022, de 19 de diciembre.

Expediente: RMT 11/2022.

PRESIDENTA: María Barrena Ezcurra.

VOCAL: Amaia Zurbano-Beaskoetxea Laraudogoitia.

SECRETARIO: Iñigo Alvear Lekue.

La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, compuesta por los miembros anteriormente expresados, ha dictado la siguiente RESOLUCIÓN ante la reclamación formulada por D , como consecuencia de la falta de contestación a la solicitud de acceso a información pública en su momento planteada. Actúa como ponente Dña. Maria Barrena Ezcurra, quien expresa el parecer de la Comisión:

## ANTECEDENTES DE HECHO

PRIMERO. Con fecha 3 de noviembre de 2022, interpuso reclamación ante esta Comisión en la que señalaba que con fecha 29 de septiembre de este año presentó un escrito al departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia, habiendo transcurrido mas de un mes sin recibir contestación.

A la reclamación acompañaba el escrito presentado el 29 de septiembre de 2022 y dirigido al Departamento de Acción Social en el que solicitaba la siguiente información:

*1) El Decreto Foral 155/2021 fija el coste terico maximo de las plazas del centro de dia. ¿Como se ha calculado? ¿Porque ese precio y no otro?*

*2) Zein da Barakaldoko eguneko zentroko plazen kostu erreala?*

**BIGARRENA.** 2022ko azaroaren 4ko idazkiaren bidez Gizarte Ekintza Saileko Autonomia Pertsonala Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiari planteatutako erreklamazioari buruzko espedientea eta txostena eskatu zaizkio.

**HIRUGARRENA.** 2022ko azaroaren 25ean Gardentasunari dagokion Erreklamazioen Batzordean Autonomia Pertsonala Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiaren txostena jaso da.

Txosten horretan azpimarratzen da aipatutako Zuzendaritzan *ez dela adierazitako pertsonaren informazio publikoaren eskaerarik egin.*

*irailaren 29an Zentroen Zerbitzura zuzendutako idazkia aurkeztu zuela dio txostenak.*

Aipatutako idazkia atxikitzen da, erreklamatzaileak bere erreklamazioarekin aurkeztu duena baita.

*Eduki berarekin eta Laguntzailearen bitartez, urriaren 28an eta 29an bi galdera egin zituen, eta biei erantzun bat eman zitzaien.*

*Egindako galderen eta Zentroen Zerbitzuko erantzunen pantaila-irudia erantsi da.*

*2021ean antzeko galderak egin zituen bide beretik, eta erantzun egin zitzaien.*

Txostenarekin batera bidalitako pantaila-irudian errekurtsogileak urte honetako urriaren 28an eta 29an Bizkaiko Foru

*2) ¿Cual es el coste real de las plazas del centro de dia de Baracaldo?*

**SEGUNDO.** Mediante escrito de 4 de noviembre de 2022, se solicita a la Dirección General de Promoción de la Autonomia Personal del departamento de Acción Social el expediente e informe relativo a la reclamación planteada.

**TERCERO.** Con fecha 25 de noviembre de 2022, se recibe en la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia informe de la Dirección General de Promoción de la Autonomia Personal.

En dicho informe se señala que en la citada Direccion *no ha entrado solicitud alguna de información publica relativa a la persona indicada.*

*Que presentó escrito dirigido al Servicio de Centros con fecha 29 de septiembre.*

Se adjunta dicho escrito, que coincide con el que el reclamante ha acompañado a su reclamación.

*Con el mismo contenido y a traves de Laguntzaile con fecha 28 y 29 de octubre realizó sendas preguntas que fueron contestadas.*

*Se acompaña captura de pantalla de las preguntas realizadas y de las respuestas del servicio de Centros.*

*Con fecha 2021 realizó preguntas similares a traves de la misma via y que fueron objeto de respuesta.*

En la captura de pantalla remitida junto al informe se recogen dos preguntas planteadas por el recurrente a traves de

Aldundiaren webgunearen bidez egindako bi galdera jaso dira.

la pagina de internet de la Diputación Foral de Bizkaia los dias 28 y 29 de octubre de este año.

Horietako lehenengoan honako hau galdetzen da: *Eguneko zentro pribatuei eta publikoei gehieneko prezio berdina ordaintzen zaie? Edo gehiegi ote den begiratzen dute?*

*Garraiodun psikogeriatriako eta mendetasun fisikoko plazentzako: 66,13 euro eguneko (BEZik gabe), 68,78 euro eguneko ( % 4ko BEZarekin).*

*Plaza psikogeriatrikoak edo mendekotasun fisikoko plazak, garraiorik gabe: 54,59 euro eguneko (BEZik gabe), 56,77 euro eguneko ( % 4ko BEZarekin).*

En la primera de las mismas se pregunta: *¿Pagan el precio maximo a los centros de dia privados y a los publicos? ¿o lo miran a ver si es demasiado?*

*Para las plazas psicogeriatricas y de dependencia fisica con transporte: 66,13 euros/dia (sin IVA), 68,78 euros/dia (con IVA al 4%.*

*Plazas psicogeriatricas y de dependencia fisica sin transporte: 54,59 euros/dia (sin IVA), 56,77 euros/dia (con IVA al 4%).*

Galdera horren erantzuna honako hau izan zen:

La contestación a la pregunta anterior fue la siguiente:

*Bizkaiko Foru Aldundiko azaroaren 30eko 155/2021 Foru Dekretuak mendekotasun egoeran dauden adinekoentzat eguneko zentro guztien plazen gehieneko kostua ezartzen du: garraiodun psikogeriatriako edo mendetasun fisikoko plazak: 66,13 euro eguneko (BEZik gabe), 68,78 euro eguneko ( % 4ko BEZarekin)- Plaza psikogeriatrikoak edo mendekotasun fisikoko plazak, garraiorik gabe: 54,59 euro eguneko (BEZik gabe), 56,77 euro eguneko ( % 4ko BEZarekin).*

*El Decreto Foral 155/2021, de 30 de noviembre, de la Diputaciuón Foral de Bizkaia fija el coste maximo para las plazas de todos los centros de dia para personas mayores en situación de dependencia: plazas psicogeriatricas o plazas de dependencia fisica con transporte: 66,13 euros/dia (sin IVA), 68,78 euros/dia (con IVA al 4%)- Plazas psicogeriatricas o plazas de dependencia fisica sin transporte: 54,59 euros/dia (sin IVA), 56,77 euros/dia (con IVA al 4%).*

Urriaren 29an egindako bigarren galderan honako hau galdetzen zen:

En la segunda de las preguntas realizada el 29 de octubre se solicitaba:

*Zein den Aldundiak plaza eta egun bakoitzeko ordaintzen duen prezioa, honako zentro hauei dagokienez: Lasaitasuna eguneko zentroari, integrazio soziokulturaleko eguneko zentroari, Laztana eguneko zentroari, Miranda eguneko zentroari, La Paz eguneko zentroari. Horiek guztiak Barakaldoko zentroak dira.*

*¿Cual es el precio por plaza y dia que paga la Diputación al centro de dia Lasaitasuna, al centro de dia de integracion sociocultural, al centro de dia Laztana, al centro de dia Miranda, al centro de dia La Paz? Todos ellos de Barakaldo.*

Galdera horren erantzun gisa, bidalitako pantaila-irudian honako hau ageri da:

Como respuesta a la pregunta anterior figura en la captura de pantalla remitida:

*Bizkaiko Foru Aldundiko azaroaren 30eko*

*El Decreto Foral 155/2021, de 30 de*

*155/2021 Foru Dekretuak mendekotasun egoeran dauden adinekoentzat eguneko zentro guztien plazen gehieneko kostua ezartzen du: garraiodun psikogeriatriako edo mendetasun fisikoko plazak: 66,13 euro eguneko (BEZik gabe), 68,78 euro eguneko ( % 4ko BEZarekin)- Plaza psikogeriatrikoak edo mendekotasun fisikoko plazak, garraiorik gabe: 54,59 euro eguneko (BEZik gabe), 56,77 euro eguneko ( % 4ko BEZarekin)*

*noviembre, de la Diputaciuón Foral de Bizkaia fija el coste maximo para las plazas de todos los centros de dia para personas mayores en situación de dependencia: plazas psicogeriatricas o plazas de dependencia fisica con transporte: 66,13 euros/dia (sin IVA), 68,78 euros/dia (con IVA al 4%)- Plazas psicogeriatricas o plazas de dependencia fisica sin transporte: 54,59 euros/dia (sin IVA), 56,77 euros/dia (con IVA al 4%)*

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

LEHENENGOA.- Gardentasunaren Inguruko Erreklamazioen Batzordea Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 27. artikuluaren bidez sortu da (aurrerantzean, *1/2016 Foru Araua, Gardentasunari buruzko Foru Araua edo Foru Araua*).

PRIMERO. -La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia se crea por el artículo 27 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia (en adelante, "*Norma Foral 1/2016*", "*Norma Foral de Transparencia*" o "*Norma Foral*").

29.1.1 artikuluaren arabera, 2. artikuluarekin lotuta (biak foru arau honetakoak), Bizkaiko Foru Aldundiak, foru erakunde autonomoek, foru erakunde publiko enpresarialek, foru fundazioek, foru partzuergoek eta aurretik aipaturikoen desberdinak diren zuzenbide publikoko bestelako foru erakundeek informazio publikoa eskuratzeko eskubidea berariaz edo ustez ukatzen badu Erreklamazio Batzordea izango da erreklamazioak ebazteko eskumena izango duena.

De conformidad con el artículo 29.1.1, en relación con el artículo 2, ambos de esta Norma Foral, la Comisión de Reclamaciones será la competente para resolver las reclamaciones frente a la denegación expresa o presunta del derecho de acceso a la información pública de la Diputación Foral de Bizkaia y los organismos autónomos forales, las entidades públicas empresariales forales, las sociedades mercantiles forales, las fundaciones forales y los consorcios forales y otros entes forales de derecho público distintos de los mencionados anteriormente.

Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiko Gardentasunaren Inguruko Erreklamazioen Batzordearen antolakuntza eta funtzionamendu araudiak, Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 26ko 128/2016 Foru

Por su parte, el Reglamento de organización y funcionamiento de la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia

Dekretuaren ("*128/2016 Foru Dekretua*") bidez onartuak, 18. artikuluan ezartzen du Batzordearen Osoko Bilkuraren eskumena dela, besteak beste, honako hau: *"a) Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzea tazituki zein espresuki ukatzea dela eta aurkezten diren erreklamazioak ebaztea, 1/2016 Foru Arauan ezarritakoaren arabera.*

128/2016, de 26 de julio ("*Decreto Foral 128/2016*"), establece en su artículo 18 que, entre otras, es competencia del Pleno de la Comisión: *"a) Resolver las reclamaciones contra la denegación expresa o tácita del ejercicio del derecho de acceso a la información pública en los términos establecidos en la Norma Foral 1/2016."*

Kasu honetan, erantzun baten falta dela eta jarritako erreklamazio bati buruz ari gara. Zehazki, Gizarte Ekintza Sailak ez diolako erantzun orain erreklamatzaile denak aurkeztutako informazio publikoa eskuratzeko eskaerari.

En el caso que nos ocupa, nos encontramos ante una reclamación interpuesta ante la falta de contestación por el Departamento de Acción Social a una solicitd de información pública presentada por el ahora reclamante.

<u>BIGARRENA.-</u> 1/2016 Foru Arauaren 18.1 artikuluan informazio publikoa eskuratzeko eskubidea aitortzen die pertsona fisiko eta juridikoei. Foru arau bereko 17-2 artikuluaren arabera, informazio publiko gisa ulertzen da: "( .. ) *foru arau honen aplikazio eremuan sartutako erakundeek duten edozein eduki edo dokumentu, euskarria edozein dela ere, erakunde horiek beren eginkizunen barruan egin, aldatu edo eskuratu badituzte eduki edo dokumentuok (...)*".

<u>SEGUNDO</u>.- La Norma Foral 1/2016 reconoce, en su artículo 18.1, el derecho de las personas físicas y jurídicas a acceder a la información pública, entendida ésta, según el artículo 17-2 de la misma Norma Foral, como: "( .. ) *cualquier tipo de contenido o documento, independientemente del soporte que se utilice, que obre en poder de las entidades previstas en el ámbito de aplicación de la presente Norma Foral y que hayan sido elaborados, modificados o adquiridos en el ejercicio de sus funciones ( ...)*".

Lege-testu bereko 20., 21. eta 22. artikuluek, berriz, informazio-eskaerak onartzea ezinezkoa dela adierazten dute, adibidez, egiten ari direlako edo lagungarriak edo osagarriak direlako, edo eskatutako informazioa ematea bidezkoa ez delako, dela datuak babesteko eskubidea gailentzen delako, dela informaziorako eskubidea erabiltzeko beste muga batzuk daudelako.

Por su parte los artículos 20, 21 y 22 del mismo texto legal señalan diversos supuestos en los que no procede admitir las solicitudes de información, por ejemplo, por estar en curso su elaboración o por tener carácter auxiliar o de apoyo; o no procede facilitar la información solicitada bien porque prevalece el derecho a la protección de datos o por concurrir otros límites al ejercicio del derecho a la información.

HIRUGARRENA. Aurreko zuzenbideko oinarrian eta ebazpenaren aurrekarietan adierazitakoa aintzat hartuta, hurrengoa esan daiteke:

<u>TERCERO</u>. Teniendo en cuenta lo señalado en el fundamento de derecho anterior, así como en los antecedentes de la presente resolución, cabe declarar lo

siguiente:

Erreklamazioa 2022ko irailaren 29an Gizarte Ekintza Sailari egindako informazio-eskaera bati erantzun ez zaiolako jarri zen, eta Barakaldoko Udalaren erregistroan aurkeztu zen, azken honek Bizkaiko Foru Aldundira bidali zuelarik.

La reclamación se interpone ante la falta de contestacion a una solicitud de informacion dirigida al Departamento de Acción Social el dia 29 de septiembre de 2022 y presentada en el registro del Ayuntamiento de Barakaldo, que la remitió a la Diputación Foral de Bizkaia.

Behin eta berriz aipatutako 1/2016 Foru Arauaren 24. artikuluko 3. apartatuarekin bat: «*Informazioa eskuratzeko aukera onetsi edo ukatzen duen ebazpena emateko epea hamabost egunekoa izango da. Dena dela, beste hamabost egunez luzatu ahal izango da. Administrazio-isiltasuna ezestekoa izango da. Aparteko egoeretan, beste hamabost egunez luzatu ahal izango da epe hori, betiere Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordeari eskabide arrazoitua aurkezten bazaio eta batzordeak onartzen badu*».

De conformidad con el apartado 3 del artículo 24 de la reiteradamente citada Norma Foral 1/2016, “*El plazo de resolución para la concesión o denegación del acceso a la información será de quince días prorrogables otros quince, entendiéndose como desestimatorio el silencio administrativo. De forma extraordinaria, este plazo podrá ser ampliado en quince días adicionales, siempre y cuando mediara solicitud motivada a la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia y su correspondiente aprobación*”.

Epe hori igaro egin da, eta erreklamatzaileak ez du jaso 2022ko irailaren 29an aurkeztutako informazio publikoaren eskaeraren erantzunik.

Este plazo ha sido superado sin que el reclamante haya recibido contestación a su solicitud de información publica presentada el 29 de septiembre de 2022.

Eskatzailearentzat ez da garrantzitsua aipatutako eskaera Bizkaiko Foru Aldundian jaso eta Zentroen Zerbitzura (Autonomia Pertsonala sustatzeko Zuzendaritza Nagusiaren mendekoa) edo Zuzendaritzara bertara iritsi izana. Partikularrak behar bezala formulatu zuen informazio-eskaera, eskaera hori Barakaldoko Udaleko erregistroan aurkeztu baitzuen, eta Bizkaiko Foru Aldundiko sail bati zuzendu zion, otsailaren 17ko Bizkaiko Gardentasunari buruzko 1/2016 Foru Araueko 23. artikuluan eta urriaren 1eko Prozedura Administratiboen 39/2015 Legeko 16.4 artikuluan ezarritakoari jarraiki.

Es irrelevante para el solicitante de la informacion que recibida la citada solicitud en la Diputación Foral de Bizkaia internamente se dirigiera al Servicio de Centros (dependiente de la Dirección General de Promoción de la Autonomia Personal) o a la propia Dirección. El particular formuló correctamente su solicitud de informacion al haber presentado dicha solicitud en el registro del Ayuntamiento de Barakaldo, y dirigido la misma a un departamento de la Diputación Foral de Bizkaia, tal como previenen los articulos 23 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero de Transparencia de Bizkaia, y 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre de Procedimiento Administrativo.

Horrez gain, ez du garrantzirik informazio-eskaera horren ondoren erreklamatzaileak Bizkaiko Foru Aldundiko webgunearen bidez galderak egin izanak, Bizkaiko Foru Aldundiak menpekotasun egoeran dauden adinekoentzako eguneko zentroei ordaintzen dien prezioari buruz.

También carece de relevancia el hecho de que, con posterioridad a dicha solicitud de información, y a traves de la pagina en internet de la Diputación Foral de Bizkaia, el reclamante realizada preguntas relacionadas con el precio que la Diputación Foral de Bizkaia abona a los centros de dia para personas mayores en situación de dependencia.

Hala da. Errekurtsogileak 2022ko irailaren 29an honako informazio hau eskatu zuen:
-nola zehaztu zen eguneko zentroko plazen gehieneko kostu teorikoa.
-zein den Barakaldoko eguneko zentroko plazen kostu erreala.

En efecto. El recurrente el día 29 de septiembre de 2022 solicitó la siguiente información:
-cómo se habia determinado el coste teórico máximo de las plazas del centro de día.
-cuál era el coste real de las plazas del centro de día de Barakaldo.

Informazio horrek Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunearen bidez egindako galderekin zerikusia du, baina ez da berdina, aurretik transkribatu ditugun galdera-erantzunak irakurrita ikusten den moduan.

Dicha información guarda relación con las preguntas realizadas a través de la página en internet de la Diputación Foral de Bizkaia, pero no es la misma, como se desprende de la lectura de las preguntas y respuestas que anteriormente hemos transcrito

LAUGARRENA.- Aurrekotik ondorioztatu da, errekurtsogileak informazio-eskaera bat egin ziola Bizkaiko Foru Aldundiari, zeina ez zen epe barruan erantzun, eta horrek bultzatu du erreklamazio hau.

CUARTO.- De lo anterior se deriva que el recurrente formuló una solicitud de información a la Diputación foral de Bizkaia, que no fue contestada en plazo, lo que ha motivado la presente reclamación.

Batzorde honek eskatuta Autonomia Pertsonala sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak egindako txostena honako hau esatera mugatzen da: aurkeztutako eskaera jaso ez zuela eta erreklamatzaileak Laguntzazileren bidez hainbat galdera egin zituela, zeinak erantzuna jaso zuten. Halere, ez du aurtengo irailaren 29an aurkeztutako informazio-eskaeraren erantzun faltaren arrazoirik edo azalpenik ematen.

El informe elaborado por la Dirección General de Promoción de la Autonomia Personal a requerimiento de esta comisión se limita a señalar que no recibió la solicitud presentada y que a través de Laguntazile el reclamante formuló varias preguntas que le fueron contestadas, pero no refiere otro motivo o explicación para la falta de contestación a la solicitud de informacion presentada el 29 de septiembre del año en curso.

Aurreko zenbakian dagoeneko erantzun diegu sailak egindako alegazioei, baina, bere txostenean, ez dira aipatzen, otsailaren 17ko Gardentasunari buruzko 1/2016 Foru Arauaren 20., 21. eta 22. artikuluetan xedatutakoaren arabera, informazio-eskaera ez onartzearen arrazoiak.

En el número anterior ya hemos dado contestación a las alegaciones formuladas por el departamento, sin que en su informe se haga referencia a ninguno de los motivos por los que, de acuerdo con los articulos 20, 21 y 22 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero de Transparencia de Bizkaia, no procede admitir la solicitud de información

Gainera, Batzorde honen iritziz, ez du ematen, 1/2016 Foru Arauarekin bat, informazio-eskaera ezeztatu edo ez onartzeko arrazoirik.

Tampoco, a juicio de esta Comisión, concurre motivo alguno que, de acuerdo con la Norma Foral 1/2016, permita denegar o inadmitir la solicitud de información.

Aurreko guztia kontuan hartuta, bidezkoa da erreklamazioa aintzat hartzea, errekurtsogileari eskatutako informazioa jasotzeko esku-bidea aitortuz.

A la vista de todo lo anterior, procede estimar la reclamación del , reconociendo el derecho del recurrente a que le sea entregada la información solicitada.

Hori guztia dela eta, Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordeak ebazpen hau ematea adostu du:

Por todo lo cual, esta Comisión de reclamaciones en materia de Transparencia, acuerda dictar la siguiente

## EBAZPENA

## RESOLUCIÓN

Lehenengoa. - jaunak bere informazio-eskaerari erantzuna eman ez izanagatik egindako erreklamazioa aintzat hartzea, Gizarte Ekintza Sailari eskatuz erreklamatzaileari aipatutako Sailetik jasotako informazioa bidaltzeko.

Primero. - Estimar la reclamación formulada por ante la falta de contestación a su solicitud de información, instando al Departamento de Acción Social a que remita al recurrente la información recabada a dicho Departamento.

Bigarrena. - Erreklamatzaileari eta Gizarte Ekintza Sailaren Autonomia Pertsonala sustatzeko Zuzendaritza Nagusiari ebazpen honen berri ematea. Halaber, Ahaldun Nagusiaren Laguntza Unitateko Estrategia Digital eta Korporatiboko Kabineteko Gobernu Onaren eta Gardentasunaren

Segundo. - Notificar esta resolución al reclamante y a la Dirección General de Promoción de la Autonomia Personal del Departamento de Acción Social. Asimismo, se comunicará a la Dirección General de Buen Gobierno y Transparencia del Gabinete de Estrategia Digital y Corporativa de la Unidad de

Zuzendaritza Nagusiari jakinaraziko zaio.

Apoyo al Diputado General.

Hirugarrena. – Ebazpen hau behin betikoa da, eta administrazioko bidea amaitzen du. Zuzenean aurre egin ahalko zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan; horretarako, BI (2) HILABETEKO epea izango da, jakinarazpena egiten den egunaren biharamunetik aurrera.

Tercero. –La presente resolución, que es definitiva, agota la vía administrativa y contra la misma se podrá interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de DOS (2) MESES a contar del día siguiente al de su notificación.

Hori guztia, Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 26ko 128/2016 Foru Dekretuaren (Bizkaiko Foru Aldundiaren gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzordearen eta Bizkaiko foru-sektore publikoko erakundeen Antolaketa eta Funtzionamenduari buruzko Araudia onartzen duena) 27. artikuluan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10. eta 46. artikuluetan ezarritako irizpideen arabera.

Todo ello de conformidad con lo dispuesto en el artículo 27 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 128/2016, de 26 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de Organización y Funcionamiento de la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia y de las entidades del sector público foral de Bizkaia, y en los artículos 10 y 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.